guren. Amafenaz irurogei anega gari batu zituezan eta anegea ogei erlean saldu. Amazazpi anega gastaiñe ta saldu zituezan amaika erlean anegea. Oneik gastañok eroan zituezan saldute Juan de Afien'ek Foruko porture. Asi zirian Obispoak egindu eutsiezanak betetako diligenziek egiten, bai Gernikera ta bai Bilbora, Bikario ta Ministroakana. Bilbaoko Matias de Bilar'ek efuztu eutsien uferie 465 efealgaiti.

¡Loyolara....!

Datofen ilen 15'en Afati ta Gernike inguruko, amalau urtetik gorako Jesus'en eta Mariaren Alaben Batzafetan sartute dagozan neskatilak eukiko dabe Loyolara Peregriñaziño andi bat. Gernikan urtengo dabe goxeko seiretan eta yoango dira itxas egaletik Deba'ra, Iziar'ko Ama ikusten; andik Loyola'ra. Loyolan eukiko dabe mezea ta eleizkizun edefak gois-afatsalde. Gero onantza Elgoibar eta Durangotik etofiko dira. Mileti gora ei dira doyazanak eta ikustea izango da peregrinaziño ain eder ori. Zazpi peseta baño ez eide yoan da etofi; doban da. Medikuek be yoango eidire ezer yazoko balitz be. Gente asko doyan lez bakotxak eroan bear dau yateko guztia; an ure baño ezta egongo.

Yoateko gogoa daukenak bizkor ibili bear dau toki barik geratu eztaiten. Loyolan S. Inazion jatetxea ta beste zer ikusi batzuk be badagoz.

S.

Nabarniz.

Eliz deyak.

Igaro dan igandian izan ziran Gabikaldekoa'tar Angela'ren lenengo elizdeyak, Efenteriko mutil bategaz, neure zorionik beruenak abertzale zintzo biori.

Dabiltzanak.

Emen agurtu doguz poz pozik Donosti'tik etofita Galdiz'tar Eleuteri E. A. B. dan neskatilia, beren ixeko Julia'gaz. Ondo etofiak.

Jayotza.

Gure efiko alkate dan Stefa'tar Iñaki'k eta beren emazte Andere'k geitu izan dabe sendia mofosko bategaz, eta «Sabin» ixen edefa esafi dautze. Zorionak abertzale sutsuori damotzuz eta ikusiko dogu beraren ixen edefagaz zelako mendigoixalia izaten dan.

Geixorik.

Obarantz eginda aurkitzen da Merikaetxebafia'tar Esteban mutii gaztia. Ainbat ariñen osatuta ikustia opa dogu.

ILUNZARPE

Markina.

Jaiak.

Amaloa'ko auzouniak bere zaindari dan Jon deunaren eguna ospe aundiagaz ospatu dabe.

S. Pedro egunian lagun asko juango da emendik Barinaga'ra bertako jaiak diriala ta. Eta igandian S. Martinen Basotxonuan zaindariaren jaia ospatuko dabe.

Gexorik.

Beingetxeko etxe jauna dan Afiola'tar Joxe Mari gexorik dago eta elexakuak artu ditu. Laster sendatuko al-da.

Bide bariak.

Itufeta auzonekuak lanian diardue S. Kristol'eraño bide bat gure aldunak egin dagian. Lortuko al dabe euren asmua oso onurakofak izango litzakelako, baña gaur esaten dabenez Diputaziñuan eztau zurikorik egon biar, eta olako bide bat ezingo da efez egin.

Olotegiak.

Emen inguruan ugari-be ugari ipini ebezan olotegiak gitxituten asi dira, laboria karu eta afautzia eta egaztiak merke ei dagoz eta iñorentzat iñok be lanik egin gura eztabelako.

Aspaldiko urtetan ezlako gari, arto, sagar eta abar ei dago aurten, eta gure basefitafok pozik dagoz. Igaro diran urtiak legofak izan dira benetan, eta poztuten gara aurten olako bafiak entzunda.

Udaldia

igaroteko asmoz asi dira etorten ainbat sendi. Emen ikusi dogu Uhagon'en alarguna bere sendiagaz. Donostia'tik etofita.

Baita emen dago Iraolagoitia'ren sendia be.

Gaminde'ren sendia be laster etofiko ei da.

Urberuaga'ko ur-etxiaren jaubiak be etofi dira.

Argia ugari.

Gure udalak argia ugari ip'ni dau kale guztietan. Lengo baten basefitar bateri au dala-ta ara zer entzun neutson: Onek kaletafak ainbeste argi jaukek kalian ibilteko eta guk basefitafok argi barik eta uflñetara juan biar basatzarik basatza eta gure lepotik kaletafak ainbeste gauza eder euki... Kaleko argiak bakafik udalak 3 000 laurleko baño geiago ordainduten ditu eta basefitafen bidiak eta itxuratxu baten ipinteko lauregun laurleko emon dabez bakafik... ¿Noiz aldatuko ete dira onek gauzok?

KUKUA

Lekeitio.

Luistafok.

Ila onen ogetabatiak jaupa edefa euki genduan luistafak. Lagunak eskaz ixan zirian.

Bermeo'ra.

Bermeo'ko jayan jente pilo edefa ixan giñian. Eta entzun genduan emendik belbil gitxi juan ziriala. Bai ba, oñez juan giñialako aldra andija.

Zer-esanak.

Zer esanik asko dabil emen erderia lafegi egiten dala ta eztala. Ezta egija ala?

Baita be, or urten dau zokondo batetik «Artadi»... mutil zafa dala-ta. Eztakit ba, baña jo aufera. Ekin bildur barik euskeraz idazten.

Doniane.

Donianez polito ospatu eben jaya emengo abertzaliak. Goxian Jaunartzia ta jaupa Konpañia'ko eleizan. Gero, amafetan, bekuan jaupa eder abestua. Neskatilen aufeskua, ta bazkarija Batzokijan.

Ta igandian, ederto ibili zirian pizkatxu bat edanda, neure lagunak, e? Ta... naikua da gaurko.

ADIGURITXU

Legendika (Kanala).

Juan-etorijak.

Ipar-Amerika'tik etofi da Uriarte'tar Domeka eta «Marqués de Urkixo» itxasontzitik Monasterio'tar Bingen. Ondo etofijak.

«Marqués de Urkixo» itxasontzira juan da Monasterio'tar Jagoba. Ondo ibili.

Doniane.

Ezin esango dogu, sati baten beintzat, soñeko bafi ta txukunakaz ibilteko bildur garianik, sasi ta arantza gustiak Doniane bespera gabian pilotu eta efe dituez-da. Afitarartekuak ibili ziran sasijak pilotuten. Neska-mutikuak bafiz jo ta su abestuten eben: Doniane-Doniane bespera gabiak = abadiak asafetu zirian = ez eben besterik egiten = alkaferi mustufak ausiten. Abesti onen zegatijen bafirik ez daukot. Antxiña'ko abadiak *boxeadoriak* ixan ziran entzuterik be ez daukot. Alan dala ba, ezin nik erantzun zegaitik abestuten dan abesti ori. Biar bada, Elgoibar'ko zubi onduan bixi dan nire adiskide kutun batek jakin leike.

Bafiztuten.

Egunokaz ari dira Legendika'ko elexa eta pelotokija bafiztuten. Euzkadi'ko pelota-txapelketan txapeldun geldidu dan Olazar'en aita eta bere lagunak artu dabe ardura au. Txukun-txukun itxiko ei dabe dana. Pozik geldituko gara olan bada.

ELIZ-MENDI

Mañari.

Deun Jon'ez.

«Garaitufe»ko basotxonuan amafetan mesa abestu bat emon zan. Berbaldija Afieta'tar Peli Durango'ko abade jaunak egin eban, eta bertan egon ziranak esan ebenez berbaldi edefa egin eban.

Egun ofetan beti lez, Aldegoyenian jai andija ixan zan; eta ori dala bertara konbidau asko eldu ziran.

Juan-etorijak.

Emen egun batzuk igarota lengo astian juan ziran Galdakano'ra Asua'tar Miren eta Efekalde'tar Josune neskatilak.

—Egunotan emen aurkitzen da Solaun'dar Koldobika, abadegeya.

—Dima'tik etofi zan Gorospe'tar Toma.

—Galdakano'tik etofi zan Uranga'tar Eukeni, mutila.

Urkuleta'rako bidia.

Urkuleta'rako bidiatzaz bafiro be zegozer entzun dogu. Bide ori egiten laster asiko dirala edo. Asi dafezala ba.

Eguraldija.

Edefa; kerexak batu ta saltzeko batez be. Aurten kerexak saneufi txikijan saltzen dirala-ta, jentia alako pozik be eztago. Batzeko zeregiña etxakiela ondo ordaintzen eta.

MAÑARIKO

Ibarangelu.

Irakurle maitiok: EKIN au zuon eskuetara eltzen danian, Bagila amaituta dago. ¡Au tamala! Iluntzietako Agurtza, otoitz eta abesti edefak juan yakuz! Poz-pozik juaten izan gara.

Garilan be badogu Karmen'go Ama'ren ila ta iluntzietan balego Agurtza, bederatziufena eta abesti ain polit edefak, gure emakumiak euzkera garbiz ain ederto abestuten dabezanak, poz-pozik juango gintzakez oin udan, ba neguan egualdi txafakaz ezin juan gitzakez-ta. Artu egizuez zorionak zeuok eta txaunburu jaunak, ain ederto ila bi onek egin dozuezalako. Ama ta Seme Jaungoikoak ordainduko zaitue.

Demanda edo juizioak.

Igaro dan astian efi onetan, zortz egunen bafuan, iru izan doguz. ¡Au tamala!

Lenengua mutikotxuena, bosna sagar ostu dabezala eta bostna lauerleko ordaindu biar. ¡Arek sagar goxuak!

Bigafena, mutikotxu batek txindia ostu ebala salerostetxe baten, aitak demandara lagundu eutson semiari au gastetxua zalako; aita-semiak ukatu... eta kitu.

Irugafena, emakume bi asafatu eta bata-bestia iraindu. Iraindu ebanak abogadue, prokuradorea eta iru testigu ekafi ebazan. Beste koitadia txirua izan eta ezin ekafi. Baña zer jazo zan?... testiguak ez ebela ezer ikusi ez entzun eta kitu. Bai ba, ofek eurok nai daben guztia egin gura dabe bañu efasoi barik ez da efez egiten.

Lekaime.

Ila onen 18'an lekaime-soñekoa artu eban efi onetako neskatila on eta liraña zan Eiguren'tar Libe'k, Begoña'ra bidian dagoan Dominika'n Lekaimetxian. Bere guraso, aizta eta sendi gustia bertan izan zan. Jaupa edefa, abeslari bikañak, batez be beronen lengusu dan Franzisko Deuna'ren semia. ¡Onek bai abotsa! Txonizlaria be alako tokietan biar zalakua, euzkera garbiz egin eban eta ain ederto ze... lekaime eta egoan notintza ugaria konkortatuta egozan alako txonitz edefik iñoz ez dabela entzun-da.

Zorionak gurasoari, sendi gustiari, abeslari, txonizlari eta zuri, Libe maitiori, Jaungoikuak bere emastetzat artu zaitualako, ba senar obarik ezin leike idoro.

Jayotza.

Ila onen 24'an ugutzau eben txadon onetan Zubieta'tar Domeka eta beronen emaste dan Donate'ren alabatxu jayo-bafija Miren Amaya euzkel-izen politakin, aita-amabitxi izanik Zubieta'tar Epipani mutil gastia eta Zubieta'tar Esperanza emakume lirain eta polita.

Zorionak, bai guraso ta bai aita-amabitxiri eta umetxua izango al da beren izeneko lenengo Amaya izan zan lakua.

NEU

ARGI DONEA gipuzkeraz salgei daukaguz JAUNGOIKO-ZALE'ren idaztitegian, 4'50 lauerlekoan dagoz.

Bolibar.

Aspaldiko jairik edefenak izan doguz aurten. Deun Jon goxa gomutagafija Bolibartafentzat. Markiñako Batzokiko abeslarijak Goikoetxea'ren mesa abestu eben oso ederto. Abeslari pilo edefa eta estafi onekuak. Gazteiz'ko goterkijan entsutetzu dan Karmeldar Joseba Domingo ereslarijak asko goratu eban abesbats au. Ereslari aonek lau abotseta ereskidatuta abestu zan Deun Jonen eresija, eta eresi aonetan Bolibar'ko neskato-mutikotxuak abestu eben eurok dakijen lez, ederto.

Markiñako abeslarijak ekafi eben eurekaz tanbolintxeruak mesa osteko aufeskua egiteko. Aufesku-atseskuak Uagok eta Laituk.

Kistar ikastija.

Mutilen artian betiko Jesus Urkidi, Azpiazu Jose eta Plosko Txikija; Neskatuak Longarte Miren, Iloro Maria, Afiaga Margari, Mari Agustina Guenetxea. Aufera goyaz, eta ondo alan be.

Datofen igandian, Garagafila 8 an emengo eta inguruetako abertzaliak jai edefak egiteko asmoz dabiz. Ikusiko doguz zelakuak diran.

GOIZ-ZALE

Beriatua.

Dabixenak.

Emen doguz, Befiz'ko ikastetxian ikasketa edefak eginda, Justa ta Felizia Plaza andereñuak, euren gurasuen ondora udalditxue igarotera etofita.

Baita ikusi dogu Bilbo'tik etofita Goikoetxea'tar Juana neskatilia.

Astute ete geunkezan egon gara Aldazabal'tar Prantzisko jaunak aspalditxuan etofi barik egonda-ta, baña ez, San Juan afatsaldian etofi jakun ta ain zuzen be egun egokijan, bada bijaramonian bere loba ta nire lagun on Gilermo'ren eguna zan-da. Ondo etofijak.

Jaureskundia.

Zarata aundi barik, ixiltasunian eta sendi guztija batuta, egin zan astelenian Jesus'en Bijotza'ren jaureskunde edo entronizaziñoia Aldazabal'en etxian. Jesus'en Bijotza jafi dabe etxe ofen jaun eta jaube, ipiñirik bere irudi eder bat etxeko tokirik agiri eta egokijenian. Jaun onaren menpeko jafi dira; bere onespen eta laguntasunak izan dagikezala.

Pelota jokuak.

Pelota partidu edefak ikusten doguz aspalditxuan Befitu'ko pelotatokijan. Igande-afatsaldian emengo Jose Aginaga ta Adrian Elordi pelotari jatofak Ondafu'ko biren aurka jokatu ta irebazi ebezan partidu bijak atsegiñez ikusi ta goguan eukitekuak izan ziran. Partiduak aitatu dodazan ezkero, beste gauza bat-be aitatu biar dot. Atsegintsu ikusten doguzala partidu ofek, esan deutzuet, baña askozaz atsegintsuago ikusiko gendukez, gure aufetikuek egin oi eben lez, lelengo efosarijua efesauta egingo ba'zendukiez. Orduerditxu bat baño ezta, neure gaztiok, ta geitxuago izanda be, guztireko dau afatsaldia.

ALBIZTARI

Afese-Beitia'ren
OLERKI-SORTATXUA
Iru efialean saltzen dogu

Mendixa.

Efitar «Arispe»ri.

Sasoi baten ainbat idazle giñien efi onetan txandia artu ezinda, zuk be bai nik be bai, da oin danok itxi deutsagu berta-bera. ¡Ai «Arispe», au da abertzaletasun azalekue! Gu baño obarik ezpadago egaletan, mata eskiñako bedafak lez laster gara igartu, ba Efamontxuk diño aldi onetan ez daukala negosio andirik EKIN'egaz. Itxartu gaitezan ba pizkat lo egon barik beti.

Egualdiak.

Lugiñak asafez dabiz lengo larunbatian ekaitz edo aixe zantar batek ainbat kalte egin dabelako gari eta sagafetan; ofez gañera sikue aufera, diñue, onan jafaitzen badeutso jentien lujue sosegauko dala, ta neu be baderitxat oneri, irakurle

Karabie.

Badiardu Plaza'tar Jeronimo'k karabie ta tejabanie egiten. Sikiran be pozafen gagoz datofen urtien nai beste kare berton izango dogule-ta. Noz edo noz baten bat itxartu danien be.

Udatafak.

Asi dire bertoko txaletak atonduten be. Urien dago aurten udatafai itxarotia leku batzuetan, arek negute udarakuek izango dire ezta baita biar be.

NABOLORIE

GORUNTZ - GAYAK
Eunak, bale-bizafak, zumitz ugaf-gaitzak
Zubiri'tar Bingen
Artekale, 50 BILBAO

Eleiz - Jantzi ta urreginfza
A. Rui-Wamba
Eleizak jasteko biar dan gustia emen aurkituko dozue ona ta merke
Plaza Nueva, 10 Ufutizkiña 14.238
BILBAO

Joseba Deuna'ren Idaztitegia
(Libreria SAN JOSÉ)
Bilbao'n danik orniduena uzkurtz'tzazko saloskai gauzetan.
BILBAO'n Loteria 2

Marin eta Goikolea
(len Apellaniz y C.ª)
Santugintza; Altara, Pulpito, Konfesonario ta eleizetarako beste zul-lanak
Castilla, 31 VICORIA